TOLOSAKO
UDALA

# TOLOSAKO HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZA

# SUBVENCIÓN EN MATERIA EDUCATIVA DE TOLOSA

**1. Xedea.**

Dirulaguntzaren xedea da bultzatzea Tolosako ikastetxeek eta guraso-elkarteek antola ditzatela curriculumaz/eskolaz kanpoko programak eta zaintza eta lana bateragarri egiteko kontziliazio-programak.

**2. Onuradunak.**

- Egoitza nagusia Tolosan duten ikastetxeak, irakastaldi hauetakoak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- Hezkuntza-arloko intereseko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko Tolosako Ikasleen Guraso Elkarteak, betiere legearen arabera eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak daudenak, behar den IFZ dutenak, eta beren jarduera batik bat Tolosako udalerrian garatzen dutenak.

Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira:

1. Xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.
2. Administrazio-, lan- edo zigor-arloan, berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ez egiteko eskubidea urratzeagatik zehazpen irmoa jaso duten pertsona fisikoak eta juridikoak.
3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta

**1. Objeto.**

El objeto de la subvención es impulsar que los centros escolares y las asociaciones de padres y madres de Tolosa lleven a cabo programas extracurriculares/extraescolares y programas de conciliación para hacer compatible los cuidados y el trabajo.

**2. Beneficiarios/as:**

- Centros con sede central en Tolosa que imparten Educación Infantil, Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria.
- Asociaciones de Padres y Madres de Alumnos y Alumnas de Tolosa, sin ánimo de lucro, que realicen actividades de interés educativo, legalmente constituidas e inscritas en los correspondientes registros, con el NIF necesario y que desarrollen su actividad principalmente en el municipio de Tolosa.

No podrán participar y estarán excluidas de la condición de personas o entidades beneficiarias:

1. Las personas físicas o jurídicas cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos vulneren el principio de igualdad de mujeres y hombres.
2. Las personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas en vía administrativa, laboral o penal de forma firme, por haber vulnerado el derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo.
3. Entidades o empresas que no cumplan los requisitos establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para

Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarakoak, ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.

4. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio anitzeko faktoreengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-taldeenak, baldin eta diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badaude, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa.

Debekua ezartzen da, xedapen hauekin bat etorrita: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua.

### 3. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

la Igualdad de Mujeres y Hombres y para una vida libre de violencia machista contra las mujeres.

4. Tampoco serán objeto de subvención las actividades que supongan discriminación por razón de sexo o factores de discriminación múltiple, de mujeres o grupos de mujeres, cuando concurran otros factores que puedan dar lugar a situaciones de discriminación, tales como la raza, el color, el origen étnico, la lengua, la religión, la opinión política o de otra índole, la pertenencia a una minoría nacional, el patrimonio, el lugar de nacimiento, la discapacidad, la edad, la orientación sexual, la identidad de género, la expresión de género, el proceso migratorio, el estatus de refugiado, la cultura, el origen rural, la situación de exclusión social, la situación de seropositividad, la familia monoparental, la configuración familiar o cualquier otra condición o circunstancia personal, social o administrativa.

Se establece la prohibición conforme a lo establecido en los artículos 4, 3.1 y 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres; el artículo 13.3 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones; el artículo 50.5 del Decreto Legislativo 1/1997, y el artículo 4 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación.

### 3. Actividades subvencionables.

- Haurren, nerabeen, gazteen eta familien edo bizikidetza-unitateen heziketan lagungarri diren curriculumaz/eskolaz kanpoko programak; bereziki, haurren, nerabeen, gazteen zein familien edo bizikidetza-unitateen garapen intelektuala, afektiboa, artistikoa eta harremanezkoa helburu duten ekintzak, eta balioak sustatzen dituztenak.
- Tolosako hezkuntza-zentroetan familien zaintza eta lan-jarduera bateragarri egiteko kontziliazio-programak.

- Programas extracurriculares/extraescolares que contribuyan a la educación de niños, niñas, adolescentes, jóvenes y familias o unidades convivenciales; en particular, acciones orientadas al desarrollo intelectual, afectivo, artístico y relacional de niños, niñas, adolescentes, jóvenes o familias o unidades convivenciales, y acciones que promuevan valores.
- Programas de conciliación para compatibilizar el cuidado y la actividad laboral de las familias en los centros educativos de Tolosa.

**4. Bete beharreko baldintzak.**

Baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntza eskuratu nahi duten ikastetxeek edo guraso-elkarteek:

- Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik, edo ez egotea horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean, barne direla Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik gertatutakoak.
- Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluaren 2. eta 3. paragrafoetan aurreikusitako gainerako egoeretan, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

**4. Requisitos a cumplir.**

Los centros o las asociaciones de padres y madres que deseen acogerse a la subvención deberán cumplir los siguientes requisitos:

- No hallarse sancionada penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni hallarse incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- No encontrarse en los demás supuestos previstos en los párrafos 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en relación con los requisitos para ser beneficiario de las subvenciones.

- Ordainketetan egunean egotea Ogasunarekin, Tolosako Udalarekin eta Gizarte Segurantzarekin.

- Estar al corriente de pagos con Hacienda, Ayuntamiento de Tolosa y Seguridad Social.

**5. Finantzaketa.**

Deialdi honetarako, Tolosako Udalak 120.000 euro bideratuko ditu 2024ko 0900.481.01.320.00 partidaren kargura, betiere dirulaguntza emateko ebazpena emateko unean obligazioak finantzatzeko aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa badago.

Deialdi honetan bi ikasturtetako jarduna lagunduko da diruz (2021-2022 eta 2022-2023), eta ikasturte bakoitzari 60.000 euroko dirulaguntza-zenbatekoa dagokio.

**5. Financiación.**

Para la presente convocatoria, el Ayuntamiento de Tolosa destinará 120.000 euros con cargo a la partida presupuestaria 0900.481.01.320.00 del año 2024, siempre que exista crédito presupuestario adecuado y suficiente para financiar las obligaciones en el momento de la resolución de concesión de la subvención.

En esta convocatoria se subvencionará las actividades de dos cursos escolares (2021-2022 y 2022-2023), con un importe de 60.000 euros por curso.

**6. Eskaerak.**

Euskara eta Hezkuntza Sailaren oinarri berezietan ezarritako betebeharrak beteko dituzte eskaerek. Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

**6. Solicitudes.**

Las solicitudes cumplirán los requisitos establecidos en las bases específicas del Departamento de Euskera y Educación. La presentación de la solicitud supone la aceptación de todas las condiciones recogidas en la presente convocatoria.

**Aurkezteko modua eta lekua:**

Inprimakiak behar bezala beteta aurkeztu beharko dira Tolosako Udalaren erregistro elektronikoaren bidez, edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan gaitutako edozein erregistroren bidez.

**Modo y lugar para presentarlas:**

Los impresos deberán presentarse debidamente cumplimentados a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Tolosa o a través de cualquiera de los registros habilitados en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.

**Eskaerak aurkezteko epea:**

Dirulaguntza horien eskaera egiteko epea hasiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean, eta 20 egun natural igarotzean itxiko da.

**Plazo para presentar las solicitudes:**

El plazo de presentación de las solicitudes de estas ayudas se iniciará al día siguiente de la publicación de la convocatoria en el

**Aurkeztu beharreko agiriak:**

- ESK-EU-01 inprimakia, behar bezala beteta (1. eranskina).
- PRO-EU-01 inprimakia, 7. puntuko irizpideen arabera behar bezala beteta (edo eskatzen diren datu guztiak jasotzen dituen proposamen-txostena) (2. eranskina):
  - Programa/jardueretan Tolosan erroldatutako parte-hartzaileen zerrenda.
  - Ikasle bekadunen zerrenda.
  - Zuzendaritzaren izendapen akta.
  - Boluntarioen zerrenda/ziurtagiria.
  - Herri mailako/ikastetxeko ekintza izatearen azalpena.
  - Hizkuntza-, hezkidetza- edo aniztasun-trataerarako irizpideen azalpena (edo erakundeak onartutako planak).
- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiria, edo udaletik hori egiaztatu ahal izateko baimena (Interesdunak aurka egiteko eskubidea baliatu badu bakarrik).
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako dirulaguntzak jasotzeko debeku kausen pean ez dagoela dioen zinpeko aitorpena.

Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará una vez transcurridos 20 días naturales.

**Documentación a presentar:**

- Impreso ESK-EU-01, debidamente cumplimentado (Anexo 1).
- Impreso PRO-EU-01, debidamente cumplimentado según los criterios del punto 7 (o informe de la propuesta que recoja todos los datos que se piden). (Anexo 2):
  - Relación de participantes empadronados en Tolosa en programas/actividades.
  - Relación de alumnos/alumnas becarios/becarias.
  - Acta de nombramiento de la Dirección.
  - Relación/certificado de voluntarios/voluntarias.
  - Descripción del carácter local/escolar de la actividad.
  - Descripción de criterios lingüísticos, coeducativos o de tratamiento de la diversidad (o Planes aprobados por la organización).
- Certificado de estar al corriente con Hacienda y Seguridad Social o autorización del Ayuntamiento para acreditarlo (Sólo si el/la interesado/a ha ejercido su derecho de oposición).
- Declaración jurada de no estar incursa en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la ley 38/2003 de 17 de noviembre.

**7. Dirulaguntzak emateko irizpideak.**

Dirulaguntzak emateko era norgehiagoka prozeduraren bidezkoa izango da.

Onartutako aurrekontu-partidako kopurua onartutako eskaera guztiei emandako puntuen baturarekin zatituko da, eta horrela kalkulatuko da puntu bakoitzaren balio ekonomikoa.

Puntu bakoitzaren balio ekonomiko hori biderkatu egingo da eskari bakoitzak lortutako puntu kopuruarekin, eta horrek emango du jaso beharreko diru-kopuruaren zenbatekoa.

Dirulaguntzaren emakida dagokion partidaren aurrekontuko diru-izendapenaren gehieneko mugaraino egingo da.

Irizpide eta baremoen araberako puntuazioa:

**7. Criterios para conceder la subvención.**

Las subvenciones se concederán mediante procedimiento de concurrencia competitiva.

La cantidad de la partida presupuestaria aprobada se dividirá entre la suma de los puntos asignados a todas las solicitudes admitidas, y se calculará así el valor económico de cada punto.

Este valor económico de cada punto se multiplicará por el número de puntos obtenidos por cada solicitud, lo que dará el importe de la cantidad a percibir.

La concesión de la subvención se realizará hasta el límite máximo de la asignación presupuestaria de la partida correspondiente.

Puntuación según criterios y baremos:

<table>
<tr><td colspan="5">HARTZAILEAK:<br>Honako hauek baloratuko dira:<br>• Tolosan erroldatutako parte-hartzaile kopurua.<br>• Hartzaile mota: ikasleak (bekadunak ere badauden), hezkuntza komunitatea, guraso/tutorea...</td></tr>
<tr><td>Parte-hartzaile kopurua<br>Tolosan errodatutako parte hartzaile kopurua</td><td colspan="4">0,5 parte-hartzaile bakoitzeko</td></tr>
<tr><td>Hartzaile mota</td><td>Programak bekadun ikasleak ditu<br><br>4</td><td>Programa ikasleei bideratua da<br><br>3</td><td>Programa hezkuntza komunitateari bideratua da<br><br>2</td><td>Programa gurasoei bideratua<br><br>1</td></tr>
<tr><td colspan="5">HEZKUNTZA-ZENTROA / ELKARTEA:</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="7">Udalak antolatzen/sustatzen dituen programa/jardueretan erakundeak daukan parte-hartze maila neurtuko da, besteak beste, kultura, ingurumena, berdintasuna, euskara eta gazteria sailetako foro eta jardueretan daukan parte-hartze aktiboa baloratuz. 4/2005 legeari jarraikiz, kontuan hartuko da erakundearen zuzendaritzan sexu biek gutxienez % 40ko ordezkaritza izatea. Bestalde, kontuan hartuko da laguntzen den programa/jardueran boluntarioek egiten duten ekarpena.</td></tr>
<tr><td>Udal jardueretan parte hartzea</td><td colspan="6">1 jarduera bakoitzeko</td></tr>
<tr><td>Emakumeen parte-hartzea zuzendaritzan % 40</td><td colspan="6">3</td></tr>
<tr><td>Boluntarioen laguntza<br>Aurkeztu den programan boluntarioen laguntza dagoen</td><td colspan="6">3</td></tr>
<tr><td colspan="7">JARDUERAK / PROGRAMA:<br>Diruz laguntzen den programa edo jarduera urtean behin, noizbehinka edo ikasturte osoan garatzeak ere ezberdin baloratuko da. Era berean, kontuan izango da jarduera ikastetxean edo herri mailan garatzen den, aurkeztutako programak daukan ekintza kopurua eta ekintza horien autofinantzaketa maila.<br>Programan edo jardueran ezarritako hizkuntza-, hezkidetza- eta aniztasun-irizpideak ere neurtuko dira.</td></tr>
<tr><td>Programaren iraupena</td><td colspan="2">Ikasturte osoa<br>3</td><td colspan="2">Noizbehinkakoa<br>2</td><td colspan="2">Urtean behin<br>1</td></tr>
<tr><td>Programaren proiekzioa</td><td colspan="3">Herri mailan<br>2</td><td colspan="3">Ikastetxean<br>1</td></tr>
<tr><td>Jarduera kopurua<br>Programak dauzkan jarduerak: keramika, dantza...</td><td colspan="6">0,5 jarduera bakoitzeko<br>(Ez dira kontuan hartuko jarduera bereko taldeak)</td></tr>
<tr><td>Autofinantzaketa</td><td>% 40-50<br>1</td><td>% 51-60<br>2</td><td>% 61-70<br>3</td><td>% 71-80<br>4</td><td>% 81-90<br>5</td><td>% 91-100<br>6</td></tr>
</table>

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Hizkuntza-plangintza:** Euskararen erabileran eragiteko esku-hartze planifikatuak izatea. | Ez dago<br>0 | Hizkuntza plangintza jasota dago<br>1 | Hizkuntza plangintza programa/jardueran integratuta dago<br>2 | Hizkuntza-plangintza erakundearen sistema osoan integratuta dago<br>3 |
| **Hezkidetza-irizpideak:** Neska eta mutilen arteko berdintasuna modu espezifikoan eta aldi berean zeharkako ardatz gisa txertatzea. | Ez dago<br>0 | Hezkidetza irizpideak jasota daude<br>1 | Hezkidetza irizpideak programa/jardueran integratuta daude<br>2 | Hezkidetza-irizpideak integratuta daude erakundearen sistema osoan<br>3 |
| **Aniztasunaren trataerarako neurriak:** Aintzat hartuta ikasleen hezkuntza-premiak, haien ikasteko interesa, motibazioa eta ahalmena, ingurune normalizatu eta inklusibo batean ikasteko neurriak hartzea. | Ez dago<br>0 | Aniztasunaren trataerarako neurriak jasota daude<br>1 | Aniztasunaren trataerarako neurriak programa/jardueran intergratuta daude<br>2 | Aniztasuna tratatzeko neurriak integratuta daude erakundearen sistema osoan<br>3 |

| | |
|---|---|
| **DESTINATARIOS/DESTINATARIAS:**<br>En esta sección, se valorarán estos aspectos:<br>• Número de participantes empadronados en Tolosa<br>• Tipo de destinatario/destinataria: alumnos/alumnas (si existen o no becarios/as), comunidad educativa, padre/madre/tutor/tutora... | |
| **Número de participantes** | 0,5 por cada participante |

<table>
<tr><td>Número de participantes empadronados en Tolosa</td><td colspan="4"></td></tr>
<tr><td>Tipo de destinatario/a</td><td>Si el programa cuenta con alumnos/as becarios/as<br><br>4</td><td>El programa está dirigido a alumnos/as<br><br>3</td><td>El programa está dirigido a la comunidad educativa<br><br>2</td><td>El programa está dirigido a padres y madres<br><br>1</td></tr>
<tr><td colspan="5">CENTRO EDUCATIVO / ASOCIACIÓN:<br><br>Se medirá el nivel de participación que la asociación tiene en los programas y las actividades organizadas/promovidas por el Ayuntamiento, y se valorará, entre otros, su participación en foros y actividades de los departamentos de cultura, medio ambiente, igualdad, euskera y juventud. Según lo establecido por la Ley 4/2005, se valorará que en la dirección de la asociación los dos sexos tengan una representación de, al menos, el 40 %. Por otra parte, se valorará la aportación realizada por las personas voluntarias en el programa o actividad objeto de ayuda.</td></tr>
<tr><td>Participar en actividades municipales</td><td colspan="4">1 por cada actividad</td></tr>
<tr><td>Participación del 40 % de las mujeres en los órganos de dirección</td><td colspan="4">3</td></tr>
<tr><td>Ayuda de personas voluntarias<br><br>Si en el programa presentado se cuenta con la ayuda de personas voluntarias</td><td colspan="4">3</td></tr>
<tr><td colspan="5">ACTIVIDADES / PROGRAMA:<br><br>Se tendrá en cuenta si el programa o actividad subvencionada se desarrolla una vez al año, esporádicamente o durante todo el curso. Asimismo, se tendrá en cuenta si la actividad se desarrolla en el centro escolar o a nivel municipal, el número de acciones del programa presentado, y el nivel de autofinanciación de las acciones.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="8">Se medirán, también los criterios lingüísticos, coeducativos y de diversidad establecidos en el programa o la actividad.</td></tr>
<tr><td>Duración del programa</td><td colspan="3">Todo el curso<br>3</td><td colspan="2">Esporádico<br>2</td><td colspan="2">Una vez al año<br>1</td></tr>
<tr><td>Proyección del programa</td><td colspan="4">Nivel municipal<br>2</td><td colspan="3">Centro escola<br>1</td></tr>
<tr><td>Número de actividades<br>Las actividades del programa: cerámica, baile...</td><td colspan="7">0,5 por cada actividad<br>(No se tendrán en cuenta los grupos de una misma actividad)</td></tr>
<tr><td>Autofinanciación</td><td colspan="2">40-50%<br>1</td><td>51-60%<br>2</td><td>61-70%<br>3</td><td>71-80%<br>4</td><td>81-90%<br>5</td><td>91-100%<br>6</td></tr>
<tr><td>Planificación lingüística: Contar con intervenciones planificadas para incidir en la utilización del euskera.</td><td>No existe<br>0</td><td colspan="2">La planificación lingüística está recogida<br>1</td><td colspan="3">La planificación lingüística está integrada en el programa/la actividad<br>2</td><td>La planificación lingüística está integrada en todo el sistema de la institución<br>3</td></tr>
<tr><td>Criterios de coeducación:<br>Incorporar la igualdad entre chicas y chicos de manera específica, y al mismo tiempo, como eje transversal.</td><td>No existe<br>0</td><td colspan="2">Los criterios de coeducación están recogidos<br>1</td><td colspan="3">Los criterios de coeducación están integrados en el programa/actividad<br>2</td><td>Los criterios de coeducación están integrados en todo el sistema de la institución<br>3</td></tr>
<tr><td>Medidas para el tratamiento de la diversidad:<br>Considerando las necesidades</td><td>No existe</td><td colspan="2">Las medidas para el tratamiento de la diversidad están recogidas.</td><td colspan="3">Las medidas para el tratamiento de la diversidad están integradas en el programa/actividad</td><td>Las medidas para el tratamiento de la diversidad</td></tr>
</table>

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| educativas, su interés, motivación y capacidad para aprender, tomar medidas para que estudien en un entorno normalizado e inclusivo. | 0 | 1 | 2 | están integradas en todo el sistema de la institución<br>3 |

**8. Erabakia.**

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Euskara eta Hezkuntza Sailari dagokio eskaeren balorazioa eta dirulaguntzak emateko proposamena egitea. Balorazio eta emakida-proposamen horiei buruzko irizpena egingo du dagokion batzordeak, organo eskudunak ebatz dezan.

Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gehienez lau hilabeteko epean hartuko da erabakia.

Epe hori igaro ondoren, Udalak ez badu erabakirik hartu eskaeraren baten gainean, ulertuko da eskaera ez dela onartu.

Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik.

**9. Onuradunen betebeharrak.**

Onuradunen betebeharrak dira hauek:

- Dirulaguntzaren arrazoi diren jarduerak egin edo/eta helburuak betetzea.

**8. Resolución.**

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, corresponderá al Departamento de Euskera y Educación la valoración de las mismas y la propuesta de concesión de las subvenciones. Dichas valoraciones y propuestas de concesión serán dictaminadas por la Comisión correspondiente para su resolución por el órgano competente.

Esta será notificada a la parte interesada.

La resolución se adoptará como máximo en el plazo de cuatro meses tras la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Transcurrido dicho plazo, si el Ayuntamiento no ha adoptado ninguna resolución respecto a alguna solicitud, se entenderá que dicha solicitud no ha sido aceptada.

El Ayuntamiento podrá requerir toda la información complementaria que considere necesaria antes de formular la propuesta de acuerdo.

**9. Obligaciones de la parte beneficiaria.**

Son obligaciones de la parte beneficiaria:

- Tolosako Udalean justifikatzea bete direla dirulaguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak.

- Udalak egin beharreko egiaztapen-jarduketen pean jartzea.

- Tolosako Udalari berri ematea berak lagundutako jarduera berberengatik jasotako beste dirulaguntzak direla eta.

- Dirulaguntzak emateko ebazpena ematen denetik bi hilabeteko epean, honako dokumentazio hau aurkeztu, *Eskaerak* atalean zehaztu diren modu/lekuetan:
  - MEM-EU-01 inprimakia, behar bezala beteta, edo bertan eskatzen diren datu guztiak jasotzen dituen proposamen txostena (3. eranskina). Lokalaren hornidura eta azpikontratatutako garbiketa gastuen portzentajearen azalpena jaso beharko da (azaleraren batezbestekoa, ordutegiaren batezbestekoa...).
  - BAL-EU inprimakia, behar bezala beteta (4. eranskina).
  - GAS-EU inprimakia, behar bezala beteta (5. eranskina).
  - Fakturak: egindako gastuen faktura originalak edo konpultsatuak.
  - Ordainketa ziurtagiriak: ordainagiriak edo banku-laburpena.
  - Obligazioen ziurtagiriak: Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharren gaineko ziurtagiriak (Interesdunak aurka egiteko eskubidea baliatu badu bakarrik).

- Realizar las actividades y/o cumplir los fines que fundamentan la concesión de la subvención.

- Justificar ante el Ayuntamiento de Tolosa el cumplimiento de las condiciones, actividades y objetivos tenidos en cuenta para la concesión y uso de la subvención.

- Someterse a las actuaciones de comprobación que realice el Ayuntamiento.

- Comunicar al Ayuntamiento de Tolosa cualquier otra subvención que le haya sido otorgada para la actividad que se subvenciona.

- Presentar la siguiente documentación en el plazo de dos meses desde la resolución de concesión, en los modos/lugares señalados en la sección *Solicitudes*:
  - Impreso MEM-EU-01, debidamente cumplimentado; o informe que recoja una propuesta con todos los datos requeridos en el mismo (Anexo 3). Deberá constar una descripción del porcentaje de gastos de suministro del local y de limpieza subcontratada (media de superficie, media de horario...).
  - Impreso BAL-EU, debidamente cumplimentado (Anexo 4).
  - Impreso GAS-EU, debidamente justificado (Anexo 5).
  - Facturas: facturas originales o compulsadas de los gastos realizados.
  - Certificados de los pagos: recibos o extractos bancarios.
  - Certificados de las obligaciones: certificados de obligaciones tributarias y de Seguridad Social (sólo si el interesado ha ejercido el derecho de oposición).

**10. Dirulaguntza ordaintzeko modua.**

Ordainketari ekingo zaio behin Udalak erabakia hartu eta zuriketari dagokion dokumentazioa aurkeztu, eta dagokion organo eskudunak ontzat eman ondoren.

**10. Forma de abono de la subvención.**

Se procederá al pago de la subvención una vez que el Ayuntamiento haya resuelto y se hayan presentado los documentos requeridos para la justificación, y con el visto bueno del órgano competente

**11. Dirulaguntzen bateragarritasuna.**

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria da helburu berberarengatik jasotako beste edozein dirulaguntzarekin.

Hala ere, dirulaguntza ezin izango da izan, beste diru laguntza batzuekin batera zein bera bakarrik, lagundutako jardueraren kostua gainditzeko bestekoa.

**11. Compatibilidad de las subvenciones.**

La subvención concedida por el Ayuntamiento es compatible con cualquier otra recibida para el mismo fin.

No obstante, el importe no podrá exceder, por sí solo o en concurrencia con otras subvenciones, del coste de la actividad subvencionada.

**12. Dirulaguntza aldatzea.**

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.

**12. Modificación de la subvención.**

Cualquier alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras entidades públicas o privadas, podrá dar lugar a la modificación del acuerdo de concesión adoptado.

**13. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.**

2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan garatutako programa hauek gauzatzeko zerikusi zuzena duten gastuak soilik hartuko dira kontuan:

- Haur, nerabe, gazte eta familien edo bizikidetza-unitateen heziketan lagungarriak diren curriculumaz/eskolaz kanpoko ekintzak.

**13. Gastos subvencionables.**

Únicamente se tendrán en cuenta los gastos directamente relacionados con la ejecución de los siguientes programas desarrollados en los cursos 2021-2022 y 2022-2023:

- Actividades extracurriculares/extraescolares que contribuyan a la educación de niños, adolescentes, jóvenes y familias o unidades convivenciales.

- Kontziliazio-programak.

**Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak:**

- Programa garatzeko beharrezko adituen gastuak.
- Programa garatzen den lokalen errentamendua.
- Programa garatzen den lokalaren hornidura gastuak (ura, argia, telefonoa, eta abar).
- Programa garatzen den lokalaren garbiketa egiteko azpikontratatutako gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 27.artikuluan jasoa dagoena.

**Dirulaguntza jaso ezin duten gastuak:**

- Bankuko kontuetako interes zordunak.
- Interes, errekargu eta zehapen administratibo eta penalak.
- Prozedura judizialek sortutako gastuak.
- Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- Errentaren gaineko zerga pertsonalak.
- Jarduera garatzeko erabiltzen diren onuradunaren ondasun inbentariagarrien amortizazio-gastuak.

**14. Organo eskudunak.**

- Programas de conciliación.

**Gastos subvencionables:**

- Gastos de personas expertas necesarias para el desarrollo del programa.
- Arrendamiento de locales para el desarrollo del programa.
- Gastos de suministro de los locales donde se desarrolla el programa (luz, agua, teléfono, etc).
- Gastos subcontratados para la limpieza de los locales donde se desarrolla el programa.

Se consideran gastos subvencionables los recogidos en el artículo 27 de la legislación vigente y de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus Entes Públicos.

**Gastos no subvencionables:**

- Intereses deudores en cuentas bancarias.
- Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
- Gastos generados por procedimientos judiciales.
- Impuestos indirectos, en caso de que se puedan recuperar o compensar.
- Impuestos personales sobre la renta.
- Gastos de amortización de bienes inventariables del beneficiario, destinados al desarrollo de la actividad.

Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Euskara eta Hezkuntza Saileko arduraduna.

Azterketa: Euskara eta Hezkuntza Saileko arduraduna.

Balioespena (Balioespen Batzordea): Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorra, Saileko arduradunak emandako txostenean oinarrituta.

Ebazpena (organo eskuduna): Zinegotzi delegatuari dagokio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorriz.

**15. Araudia.**

Deialdi honetan espresuki zehaztua ez den orotan, lege eta ordenantza hauek izango dira aplikaziozkoak:

- Azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala); horren garapeneko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala).
- Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzen ordenantza orokorra (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2023ko apirilaren 11, 68. zk.).
- Tolosako Udaleko hezkuntza arloko dirulaguntzak erregulatzeko ordenantza.

**14. Órganos competentes.**

Organización e Instrucción (Órgano Instructor): responsable del Departamento de Euskera y Educación.

Análisis: responsable del Departamento de Euskera y Educación.

Valoración (Comisión de Valoración): comisión informativa del área de ciudadanía, en base al informe emitido por el responsable del departamento.

Resolución (órgano competente): corresponde al concejal delegado, de acuerdo con las competencias y delegaciones temporales vigentes en cada momento en la organización administrativa del Ayuntamiento.

**15. Normativa.**

En todo lo no previsto en la presente convocatoria serán de aplicación las siguientes disposiciones legales:

- La Ley 38/2003, del 17 de noviembre, General de Subvenciones (Boletín Oficial del Estado de 18 de noviembre) y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, del 21 de julio (Boletín Oficial del Estado de 25 de julio);
- Ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y de sus organismos públicos (Boletín Oficial de Gipuzkoa, nº68, 11 de abril de 2023).
- Ordenanza reguladora de las subvenciones en materia educativa del Ayuntamiento de Tolosa.

2023ko abenduaren 4an